



Berritzeguneak
Vitoria-Gasteiz



EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA
Prestakuntzan eta Hezkuntzaren
Berrikuntzan Laguntzeko Zentroak



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Centros de Apoyo a la Formación e
Innovación Educativa

MD1213

Err.	Onespen eta indarreko data
0	01-07-2011

Lan plangintzaren balorazioa

Programa:: **HIZKUNTZA NORMALIZAZIOA**

ikasturtea: **2020-2021**

1. Sarrera

PARTAIDEAK

Oier Zearra eta Iñaki Jauregiartzo.

AURREKARIAK

Ulibarri Programak ibilbide luzea du eta honen adierazgarri, EAEn 400 ikastetxe eta Araban 40 ikastetxeekin dugun konpromisoa. Hizkuntza Normalkuntzako Proiektuaren garapenean gaude murgildurik, 2018-2022 lau urteko zikloaren baitan.

IKASTURTE HONETAKO HELBURUAK

- Ulibarriko Ikastetxeei aholkularitza eta jarraipena ematea.
- Ikastetxe bakoitzaren ezaugarriak kontuan izanik, normalkuntza alorrean garapen egokiena bideratzea.
- Ulibarri mintegiak antolatzea eta dinamizatzea.
- HNATen artean lan taldeak eratzea eta dinamizatzea, interesgune ezberdinak jorratu, hauek inplementatu eta ondorioak aztertuz eta partekatuz.
- HNAT-n prestakuntzan baliabide egokiak eskaintzea: EHB, ahozotasuna.
- HNAT eta HN Batzordeari tokian tokiko erantzunak eskaintzea normalkuntza alorraren inguruan.
- HN koordinazio bileratan parte hartzea.
- HN Lan taldeetan parte hartzea.
- Euskararen berriparera aldizkari digitala sustatzea, zabaltzea eta argitaratzea.
- Euskara Zerbitzuko kideekin planifikazio bileratan parte hartzea.
- Aldundiko eta Udaleko Euskara Zerbitzuko teknikariek koordinazioan eta lankidetzan aritzea (Araba Hezitzailea koordinazio gunea).
- Euskalgintzako taldeekin (GEU, Oihaneder, Bai Euskarari elkarte,...) lankidetzan aritzea.
- Berritzeguneko IKT programarekin lankidetzan uneak eta gaiak bideratzea.
- Laneki - Jakin bai elkartearekin harremanak sendotzea eta hauen berri Lanbide Heziketa ikastetxeei zabaltzea.

IKASTURTE HONETAKO ASMOAK

- Mintegiak eskaini eta dinamizatu. Mintegi bakarra, bateratua, egongo da ikasturte honetan non lehengo Aiara eta Gasteiz uztartzen diren. Aurrez-aurre edo online egiteko aukera eskainiko da.
- Sitea informazio bilgune eraginkorra bilatu. https://labur.eus/hnparaba20_21
- Mintegian kanpoko eragileen formazioa bideratu saio monografikoen bitartez: Ahozotasuna (Olatz Bengoetxea) eta Irratigintza (Josune Igoa).
- Gero eta ugariagoa den Lanbide Heziketako taldeari, berezkoa duen Normalizazio esparruko ibilbidea bideratzeko tresnak eskaintzea eta loturak dinamizatzea (Laneki-Jakinbai).



Berritzeguneak
Vitoria-Gasteiz

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA
Prestakuntzan eta Hezkuntzaren
Berrikuntzan Laguntzeko Zentroak



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Centros de Apoyo a la Formación e
Innovación Educativa

MD1213

Err. Onespen eta
indarreko data

0 01-07-2011

- ESKOLA HIZTUN BILA jardunaldiaren hitzaldiak, bideoak, materialak eta baliabideak ikastetxeetan zabaltzea eta erabiltzea.
- Lan taldeko gaiak landu, ikastetxeetara eraman eta hausnarketak partekatu mintegiko taldean.
- Koordinazioan aritu: Euskara Zerbitzua, Normalkuntza Aholkulariak, Udala, GEU elkarte, Oihaneder Euskararen Etxea, Arabako Foru Aldundia, eta Euskalgintzarekin
- Normalkuntza Proiektuaren eraketan eta inplementazioan ikastetxeen bidelaguna izan.
- **ARRUE(2020-2021) Euskal Autonomia Erkidegoko eskoletan euskararen erabileran eragiten duten ezaugarrien identifikazioa Ikerketa-proposamenean laguntzea.**
- **EUSKARALDIA ekimena zabaltzea eta indartzea mintegian zein Berritzegunean.**

JARDUERAK

- Ulibarri Mintegia gauzatu: Araba (bateratua) Gasteiz eta Aiara. Lanbide Heziketa ikastetxeentzat bereziki 4 mintegi antolatu, Olatz Imaz (LANEKI-JAKINBAI) eta LAN SAREAKo Rober Gutierrezekin.
- Pairatzen ari garen pandemia kontuan izanik, Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia lantzeko baliabideak bildu eta prestatu.
- Normalkuntza Proiektuan, urteko planean eta memoria egiterakoan aholkularitza.
- Mintegietako lan taldeetako gaiak proposatu, bideratu eta inplementatzera eraman.
- Koordinazio bilerak agente ezberdinekin.
- Ikastetxeen eskaerei erantzun, normalkuntza alorrean.
- Prestakuntza saioa antolatu Soziolinguistika Klusterraren bitartez.
- Normalkuntza Teknikarion lan taldeetan aritu eta HNATentzat lagungarriak diren materialak ekoiztu.

2. Ikastetxeetan garatu diren eskuhartze nagusiak [esanguratsuak]

Ondo egindakoa	Hobetzeko aspektuak eta proposamenak
<ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxeei programaren inguruko informazioa eskaintzea. • Deialdien berri ematea: IRALE, NOLEGA, EGB... • Telefonoz eta emailaz ikastetxeetan sortzen diren zalantzak argitzea. • Programari lotutako tramiteak egiteko laguntza tekniko eskaintzea: Urteko Plana, Urteko Memoria, Justifikazioa eta jarraipena. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxe guztiekin ezin izan dugu bilera egin, gutxi batzuk izan dira. • Datorren ikasturtean ikastetxeetako Hizkuntza Batzordeekin biltzea komenigarria litzateke ikasturte garrantzitsua delako Branka eta HNP 22-26 egin behar dutelako. •



<ul style="list-style-type: none"> • Urteko Planaren jarraipena Hizkuntza Batzordearekin eta zuzendaritza taldearekin ikastetxean . • Programan sartzeko asmoa azaldu duten ikastetxetako zuzendaritzarekin bilera informatiboak egitea. 	
--	--

3. Prestakuntza ekintzak: ikastaro eta mintegiak

Ondo egindakoa	Hobetzeko aspektuak eta proposamenak
<ul style="list-style-type: none"> • Lanbide Heziketa aparte jarri. • Informazioa ongi eman da. • Lanbide Heziketaren izaera berezia kontuan hartzen hasi da dagoeneko, gure mintegietan. • Lanbide Heziketa bereiztea. Eskolak ezberdineko "arazoak" eta planteamenduak plazaratzea. • Edozein kezkaren aurrean laguntza jaso dugu. • Data eta deialdiei buruzko informazioa behin eta berriro jaso dugu. • Sitean informazioa eskuragarri. • Informazioa ematea. • Talde txikitik lan egitea + Jorrotutako gaiak+ Sortutako materialak. • Oso ondo antolatuta dago mintegia eta gure arteko elkartrukeak ere oso ondo egon dira. • Euskararen normalizaziorako proposamen egokiak. • Emandako estaldura. • Partekatutako informazio eta baliabide guztiak. • Zalantzen aurrean, laguntza eskatu eta beti modu onean erantzuten digute. • Aurrez aurreko bilerak / Talde lanak Eskola Hitzun Bilaren harira • Antolaketa, webgunearen hornikuntza, deialdiez e.a. informazioa helaraztea. Kideen lanen berri izatea. • Zoragarriak izan dira aurtengo lan taldeen ekoizpenak. Zorionak! • Lanbide heziketaren izaera berezia kontuan hartzen hasi da dagoeneko, gure mintegietan. • Emandako informazioa eta LAN taldeetan egindako lana • Kulturaren transmisioaz jardun izana, pilulak, saskia .. • Site-a oso lagungarria da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Taldea(LH) bakarrik laga. • Gure proposamenak lantzeko denbora gehiago. • Datorren ikasturteari begira, Lanbide Heziketaren proiektu bateratua egiten saiatuko nintzateke. Izan ere, daukagun erronka ez da makala eta ezin ibil gaitzek nor bere aldetik. • Urtero 2-3 ildo nagusi hautatu eta horiek lantzeko egutegia eta eginbide zehatzak proposatu eta aurrera eraman. • Bigarren Hezkuntzakoak ez garenok, beste baliabide batzuk eskaini, gure errealitatea gehiago hurbildu. • Saio eta ordu gehiegitxo eman ditugu gure kasa lanean. Zenbaitetan galdu samar. laz egin zen bezala, adituekin saioak faltan bota ditut. Oso interesgarriak iruditu zitzaizkidan. • Momentuak, lekua ematen jarraitu maite dugun honi. • Datorren ikasturteari begira, lanbide heziketaren proiektu bateratua egiten saiatuko nintzateke. Izan ere, aurrean dugun erronka ez da makala eta ezin ibil gaitzke nor bere aldetik. • Bide horri segida ematea • Beste ikastetxe batzuk euskararen eguna edota kultur astea nola ospatzen duten azaltzea, ideiak biltze aldera. euskara sustatzeko ekintza zumeen berri ematea, azken finean adibide praktikoak gelaratzea nahi dugulako. • Mintegiak Lanbide Heziketara moldatu beharko liriteke. Pasa den urtean ere hasi ginen bileretako aktak jasotzen, eta hori ere utzi dugu. Sentsazioa daukat gai oso orokorrak ditugunez mintegietan lantzeko, askotan dena difuminatzen dela eta ez



Berritzeguneak
Vitoria-Gasteiz

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA
Prestakuntzan eta Hezkuntzaren
Berrikuntzan Laguntzeko Zentroak



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Centros de Apoyo a la Formación e
Innovación Educativa

MD1213

<i>Err.</i>	<i>Onespen eta indarreko data</i>
0	01-07-2011

- Egoera berezi honetan, Oierrek eta Iñakik taldearen erritmoa berreskuratzea lortu dute. Zorionak eta eskerrik asko!
- Poliki-poliki badirudi (nahiz eta beharbada hurrengo ikasturterako izan beharko den jadanik) gaiak zehazten ari garela: duala zein FCT-ak euskaraz eta euskarazko matrikulazioa bultzatzea.
- Lan ikaragarria egiten duzue. Plangintza primerakoa da eta zuen laguntza ikaragarria
- Lan txukuna
- Dena esango nuke, oso dinamikoa, praktikoa, guztiz erabilgarria eta irakaslego osoari luzatu beharrekoa deritzot. Ezinbesteko hausnarketa bideratzeko ezinbesteko baliabidea. Oso gustura aritu naiz
- Oso ondo egon da LHko ikastetxeak elkarrekin mintegietan egotea eta gure kezka, ekimen eta abar partekatzeko aukera izatea.
- Bizi dugun egoera ikusita, lan handia egin da dena aurrera atera ahal izateko. Ahalegina egiteaz gain, emaitza ona izan da. Eskerrak eman hau posible egin duzuenoi.
- Lantaldeen aurkezpen ,ekarpen eta lanak
- Material erabilgarri oso ona partekatu dugu.

garela gaiak zehaztera iristen. Horrek eta norberak bere ikastetxean zein HNB taldean bizi dezakeen egoerak, gaia astun xamarra egin dezake eta motibazioa galtzea ekarri dezake.

- Mintegi batetik bestera ikastetxeko dinamika xurgatzen gaitu HNATok eta ondo legoke, mintegi artean taldearen hariari jarraipena emateko bitartekoren bat izatea.
- Berrientzat burokrazia lanak egiteko azalpen gehiago bileretan bertan.
- Mintegian kanpoko eragileen formazioa ezin izan dugu bideratu saio monografikoen bitartez: Ahozkotasuna (Olatz Bengoetxea) eta Irratigintza (Josune Igoa).